




ZUZENBIDE ZIBILA

OBLIGAZIO-ZUZENBIDEA
Obligazio juridikoaren existentzia

Mikel Mari KARRERA EGIALDE.

PERTSONAK ETA ERLAZIO JURIDIKOAK



Pertsona fisikoen egoera zibila:

- (1) Ama: adin nagusikoa; bizkaitarra.
- (2) Seme lehena: adin nagusikoa; bizkaitarra
- (3) Seme bigarrena: adin nagusikoa; bizkaitarra.


Pertsona juridikoak:

- (4) Foru Aldundia: erakunde publikoa (Errege Dekretu-Lege 18/1977; Errege Dekretu 124/1979; Lege Organiko 3/1979, 10.3 eta 37; Lege 27/1983).
- (5) Zahar-etxea: IMQ Taldea (mediku-elkarteak sortutako sozietatea)/Igurco Unbe egoitza.

EGITATEAK

1991.02.12	Amak, alargun geratu ostean, bere ondasun guztiak dohaintzan eman dizkie bere bi semeei.
2009.03.01	Garuneko infartuak jo eta bakarrik bizitzen egoteko gai ez denez, Erandioko zahar-etxean sartzen du ama seme lehenak. Anaia ez dago ados erabaki horrekin, zahar-etxe publikoa ez delako, eta bere etxean ama izateko prest agertzen da.
2009.03.01/ 2010.11.18	Seme lehenak zahar-etxeko gastuak ordaintzen ditu, hilero 2.700 euro eta, noizik eta behin, tratamenduak eskatzen dituen aparteko gastuak.
2010.11.18	Aldundiak, eskaera izapidetu ostean, zahar-etxean lekua amari esleitu eta, dirulaguntzaren kariaz, egoitzako gastuak ordaintzeko pentsioarekin iristen da.
2011.01.11	Amak ahala eman ostean, seme lehenak haren izenean mantenu-demanda jartzen dio seme bigarrenari, amaren mantenua bi semeen kontura izan dadin.
2011.05.10	Epaiketaren barruan, alderdi biak transjitzu-akordioa iritsi ostean, epaileak auto bidez berresten (homologatzen) du seme bakoitzak mantenu gisa amari eman beharrekoa (200 euro), egoitzako gastuak horrekin osatzeko.
2012.02.16	Ama hiltzen da
Demanda 2012.11.19	Seme lehenak transjitzu-akordioaren aurretik zahar-etxeari ordaindutako gastuen erdia eskatzen dio anaiari, itzultze-akzioa baliatuz.

Roj: (1) SAP BI 263/2015; (2) ATS 9272/2016; (3) STS 793/2017.





IRUZKINA

Laburpena: 1. Sarrera. 2. Abiapuntua: harreman juridikoak. 2.1. Filiazioa eta mantenu-obligazioa. 2.2. Zerbitzu-kontratua. 2.3. Aldundiaren funtzioa. 2.4. Transijitze-kontratua. **3. Eztabaida: arazo juridikoak.** 3.1. Ordaintetaren kausa eta itzultze-akzioaren oinarria. 3.2. Obligaziorik eza. **4. Ondorioak.**

1. Sarrera

Egungo gizarteak bereganatu dituen ezaugarrien artean, pertsonen bizi-itxaropena areagotu izana agertzen da. Baina, horrekin batera, zahartzarora iristen dituen pertsonen trataera berezia aurreikusi beharra ere sortu da. Hain zuzen ere, emakumeak lan-merkatuan aritzea lortu duen heinean, edadeko jendearen ardura ez da garai bateko etxeoandarearen ardura eskusiboa eta, ondorioz, zaharrak zaintzeko baliabide berriak ugaltu izan dira azken urteotan, zahar-etxeen inguruan merkatu zabala eta konplexua eratu delarik.

Hasiera batean, ikuspegi ekonomikotik, norberak bere buruaz arduratzeko erantzukizuna baldin badauka ere, zahartzarora iritsi diren pertsonen geratzen zaizen pentsioa askotan ez da nahikoa izaten sortzen diren gaixotasun- eta laguntza-gastuei aurre egiteko. Are gutxiago emakumeak lan-merkatuan aritzeko aukerarik izan ez eta gizarte segurantzara ekarpenik egin ez badu; horregatik, emakume askoren kasuan, alargun-pentsio urri bat jasotzeko eskubidea besterik ez zaie geratzen bizitzako azken urteei aurre egiteko.

Bestalde, familia-eredu berrien kariatz, gurasoak bakarrik geratu beren etxean eta haien umeak beren etxebizitza eta familia autonomoa eratzeko joera zabaldu da. Tradizio zaharrean ohikoa zen umeetako bat «etxera ezkontzea», etxebizitza beretzat izateko eskubidea eman eta gurasoak zaintzeko betebeharra sortuz. Gaur egun, ordea, arazo zabaldua da bakarrik bizi diren edadeko jende ugari egotea beren etxean, horrek gizartearen sortzen dituen buruhauste desberdinekin.

Faktore horiek daude arazo honen jatorrian: ama batek bi seme izanda (alabarik baden kasuetan ohikoagoa da berak ardura hartzea), osasun-arazoak etortzen zaizkionean amari, batek ama zahar-etxean sartzera erabakitzen du, bere anaiaren jarrera eta iritzia errespetatu gabe. Zahar-etxeetako zerbitzuak ez dira merkeak izaten eta norik ordaindu arazo bihurtzen da. Botere publikoek laguntza-ekimenak badituzten arren, eskaera izapeditu bitartean amaren ardura eta zaintza hartzeak tirabirak sortzen ditu anaien artean, askotan arrazoi ekonomikoak tarteko: guztiek ez dauzkate baliabide ekonomiko berdinak eta batentzat ordaingarria dena, bestearentzat ezinezkoa suertatzen da.

Kasuz jabetzeko, beraz, familiaren barruan legeak agintzen duen mantenu-obligazioa azaldu behar da lehenik (§ 2.1). Gero, zahar-etxean sartzeko eratzten den kontratua aipatuko da (§ 2.2) eta Aldundiak horrelako egoeretan betetzen duen papera ere bai (§ 2.3); gainera, kasuko interesatuek mantenua emateko modua transijitze-kontratu bidez hitzartu izana ere argituko da (§ 2.4). Harreman desberdinen eremua zehaztu ostean, epaitu den arazo nagusia aztertuko da, ea itzultze-akziorik baden (§ 3.1) edo obligaziorik ez den sortu (§ 3.2).

2. Abiapuntua: harreman juridikoak

2.1. Filiazioa eta mantenu-obligazioa

Ikuspuntu «biologiko» batetik, sortzaile eta sortuen arteko erlazioa da filiazioa. Orain interesatzen zaiguna, ordea, guraso eta umeen artean zuzenbideak aurririkusten duen lotura da, hau da, beraien arteko «erlazio juridikoa». Genetikak ahalbidetzen badu ere,



filiazioa genetikoki ez den lotura batengatik gerta daiteke, adopzioan esate baterako. Gainera, filiazioak ez ditu barnebiltzen ezkontzaren barruan sortutako umeak bakarrik, ezkontzaz kanpoko erlaziotik sortuak ere, noski, seme-alaba gisa aitortzen baititu legeak: «La filiación puede tener lugar por naturaleza y por adopción. La filiación por naturaleza puede ser matrimonial y no matrimonial. Es matrimonial cuando el padre y la madre están casados entre sí. La filiación matrimonial y la no matrimonial, así como la adoptiva, surten los mismos efectos, conforme a las disposiciones de este Código» (KZ 108). Behin filiazioa zehaztu eta erregistro zibilean jaso ostean (EZL 44), filiazioaren «eraginak» abiaraztea ekarriko du zehazketa horrek; izaeraz familiari lotutako eskubideak eta betebeharrak osatzen duen eraentza juridikora meneratzea sortzen du filiazioa zehazteak.

Filiazio-erlaziotik, ahaideak lotzen diren heinean (KZ 915), mantenu-obligazioa sortzen da alderdientzat: «Se entiende por alimentos todo lo que es indispensable para el sustento, habitación, vestido y asistencia médica...» (KZ 142); «Están obligados recíprocamente a darse alimentos en toda la extensión que señala el artículo precedente... los ascendientes y descendientes» (KZ 143). Legezko betebeharrak hori benetako obligazio juridiko bihurtzeko, bi betekizun bildu behar dira:

(1) Modu duinean bizitzeko baliabide *nahikorik* ez izatea: «La cuantía de los alimentos será proporcionada al caudal o medios de quien los da y a las necesidades de quien los recibe» (KZ 146); «Los alimentos, en los casos a que se refiere el artículo anterior, se reducirán o aumentarán proporcionalmente según el aumento o disminución que sufran las necesidades del alimentista y la fortuna del que hubiere de satisfacerlos» (KZ 147).

(2) Obligazioa legeak aurreikusteak ez du esan nahi jada sortu denik, izan ere obligazio juridikoa egoteko «behar den» mantenua *eskatu* egin behar du interesatuak (hartzekodunak, aipatutako «inguruabarrak» aztertu eta horien arabera betetzeko modua edo zorraren zenbatekoa (prestazioa) «zehazteko». Behin obligazio juridikoa (zordun/hartzekodun erlazioa) sortuz geroztik, obligazioaren egiturari amak du alderdi hartzekodunaren posizioa, hau da, ama bera da hartzekoduna eta bere bi umeak zordunak dira: «La obligación de dar alimentos será exigible desde que los necesitare, para subsistir, la persona que tenga derecho a percibirlos, pero no se abonarán sino desde la fecha en que se interponga la demanda» (KZ 148.1).

Arau horren aplikazioan, jurisprudentiak doktrina hau ezartzen du:

(1) Legezko obligazioa ez da benetako obligazio juridiko bihurtzen eskatzen ez den bitartean: «Una cosa es que se haya reconocido la relación jurídica de que derivan los alimentos y otra que éstos se soliciten en tiempo y forma con fijación de la pensión, los plazos de abono de los mismos y la forma de hacerlos efectivos. Por tanto, no debe confundirse tiempo del nacimiento y tiempo de la exigibilidad de los alimentos. Y planteada la exigencia de los alimentos ante los Tribunales, éstos por carecer aquéllos de efecto retroactivo no puede condenar a pagarlos sino desde la fecha que se interpuso la demanda; consecuencia todo ello de la regla clásica “in praeteritum non vivitur” y de estar concebidos los alimentos para subvenir a las necesidades presentes y futuras del alimentista y no para las de épocas ya pasadas en que el alimentista ha vivido sin los alimentos que ahora pide; prescindiendo de la circunstancias que le rodearon en ese tiempo pretérito» (AGE 1995.04.08: Roj STS 2099/1995).

(2) Bereizketa horrek badu bere zergatia: «Tradicionalmente, se ha justificado con la máxima “in praeteritum non vivitur”. Pero, si fuese esa la justificación, el alimentista nunca podría exigir al alimentante el pago de pensiones alimenticias atrasadas: vivió sin ellas; y lo contrario se desprende del art. 1966.1 CC. A lo que habría que añadir, contemplando la aplicación de aquella norma a la obligación del padre y de la madre de prestar alimentos a sus hijos menores de edad, que esa obligación no requiere que el hijo necesite los alimentos para subsistir. La ratio de lo dispuesto en la frase final del artículo 148.1 CC, lo que el legislador ha querido con tal disposición, es proteger al deudor de alimentos, evitando que le sea reclamada una cantidad elevada de dinero (hasta cinco años de pensiones, a tenor del art. 1966.1 CC) a quien podía desconocer o dudar razonablemente que era, o por qué importe era, deudor de alimentos» (AGE 2016.09.30: Roj STS 4184/2016).



(3) Horregatik, obligazio juridikoa sortu artean betetakoa edo ordaindutakoa ezin da itzultzea eskatu: «*La no devolución tiene su origen en la vieja sentencia de 18 de abril de 1913, que confirma la línea jurisprudencial de las sentencias de 30 de junio de 1885 y 26 de octubre de 1897, que establecieron que los alimentos no tienen efectos retroactivos, “de suerte que no puede obligarse a devolver, ni en parte, las pensiones percibidas, por supuesto consumidas en necesidades perentorias de la vida”. No se devuelven los alimentos como tampoco se devuelven los demás efectos asociados a estos derechos y obligaciones propias de las relaciones de los padres con sus hijos mientras se mantengan*» (AGE 2015.04.24: Roj STS 1933/2015).

(4) Hain zuzen ere, demanda zuzen tarteratu eta prestazioa zehazteak sortuko du kreditu-eskubidea hartzekodunarentzat eta zorra zordunarentzat: «*Cuando la obligación alimenticia nace ope legis por el hecho del vínculo del parentesco en caso de no ser prestados de forma voluntaria, no puede operar o tener efectividad sino desde la interposición de la demanda, siendo esta necesaria para que la obligación surja legalmente y con ello un concreto deber, pues una cosa es el momento del nacimiento de la obligación, y con ello la posibilidad de ejercitarlo, y otra que se puedan reclamar conceptos de manutención de un hijo, devengados antes de haberlo solicitado judicialmente cuando tan sólo existía una obligación inconcreta, por lo que en modo alguno puede servir de base a una acción de reembolso, que exige una deuda exigible y líquida*» (AGE 2016.09.29: Roj STS 4176/2016).


2.2. Zerbitzu-kontratua

Seme lehenak bere kabuz erabakitzen du ama zahar-etxera eramatea eta zein egoitzara eraman ere bai, anaiarekin hitz egin gabe edo adostasunera iritsi gabe. Horretarako zerbitzu-kontratu bat egin behar du zahar-etxearekin: «*El contrato existe desde que una o varias personas consienten en obligarse, respecto de otra u otras, a dar alguna cosa o prestar algún servicio*» (KZ 1254); «*El arrendamiento puede ser de... servicios*» (KZ 1542); «*En el arrendamiento de... servicios, una de las partes se obliga... a prestar a la otra un servicio por precio cierto*» (KZ 1544). Obligazio nagusiak, izaeraz sinalagmatikoak, bi dira: zerbitzua emateko obligazioa (*prestar servicio*) eta dirua ordaintzeko obligazioa (*precio cierto*). Kasu honetan, kontratuaren berezitasuna da enpresak bete behar duen zerbitzu-obligazioa ez dela kontratuko beste alderdiaren alde, hirugarren baten (amaren) alde baizik. Orain, dirua ordaintzeko obligazioa seme lehenak bere gain hartu du eta, ondorioz, obligazio hartan zorduna da.

Kontratuan haren anaiak ez badu parte hartu, ez du obligaziorik ere hartu bere gain eta dirua ordaintzeko obligazioan zordun bakarra agertzen da. Zorra biek hartu izan balute eta solidarioa balitz, akzio hau balia dezake zordun ordaintzaileak: «*El que hizo el pago sólo puede reclamar de sus codendores la parte que a cada uno corresponda, con los intereses del anticipo*» (KZ 1145.2). Baina balizko mantenu-obligazioan ez dago berdintasunik edo solidarizarik, bakoitzak dituen ahalbideen proportzioan zehaztuko baita zordun bakoitzaren zorra. Hau da, zahar-etxearekiko obligazioa kontratuak sortu du; legeak aurreikusitako mantenu-obligazioa baliatzeak, ordea, ez du obligaziorik sortu erlazio juridiko horrekin zerikusirik ez duelako.

2.3. Aldundiaren funtzioa

Bizkaiko ordenamenduan, osasun-zainketak aldi batean emateko, araudi honek jasotzen du: «*Honako hau da foru dekretu honen xedea: mendetasuna duten pertsonentzako egoitzen foru sareko egoitza-unitate soziosanitarioetara sartzeko araubidea arautzea, bai eta laguntza-zerbitzua emateko baldintzak ere*» (Foru Dekretu 103/2012). Behin betirako bada, berriz, beste honek aurreikusten du oinarrizko eraentza: «*Foru dekretu honen helburua da mendetasuna duten pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu publikoan sartzeko araubidea eta zerbitzu hori egonaldi iraunkorrean emateko baldintzak arautzea*» (Foru Dekretu 17/2014). Betekizun ekonomikoetara dagokienez, kostua kalkulatzeko araudia izango da kontuan: «*Foru dekretu honen xedea besteren*





laguntza behar duten adinekoen egoitzen foru zerbitzu publikoa jasotzeko araubidea eta zerbitzu horretako egonaldi iraunkorrerako baldintzak ezartzea da» (Foru Dekretu 100/2013). Aldundiak enpresarekin hitzarmena egina badu, zahar-etxean ordaindu beharrekoa erabiltzaileak dituen baliabideen arabera zehazten da.

Egindako dohaintza ez da kontuan hartu, baina egindako dohaintzak atzera botatzeko ahalmena ere beti kontuan izan behar da: «*La donación podrá comprender todos los bienes presentes del donante, o parte de ellos, con tal que éste se reserve, en plena propiedad o en usufructo, lo necesario para vivir en un estado correspondiente a sus circunstancias*» (KZ 634); «*También podrá ser revocada la donación, a instancia del donante, por causa de ingratitud en los casos siguientes:... Si le niega indebidamente los alimentos*» (KZ 648.3). Arau hori interpretatuz, jurisprudentziak honako iritzia du: «*Los alimentos a los que se refiere el art. 648.3-3 CC, no solo engloban los determinados en los arts. 142 y 143 CC, sino también a los alimentos debidos “pro donationis”. O sea que, aparte de lo que es indispensable para el sustento, habitación, vestido y asistencia médica del donante, se deben incluir los que se especifiquen o se deriven ineludiblemente del contrato de donación*» (AGE 1997.07.28: Roj STS 5313/1997). Administrazio publikoak, interes publikoaren arabera, kontuan har ditzake ere eskatzaileak balia ditzakeen akzioak: mantenu-obligazioa eskatzea familiakoei eta egindako dohaintzak errebotatzeko ahalmena.

2.4. Transijitze-kontratua

Amak seme bigarrenari mantenu-obligazioa zehazteko demanda jarri ostean, auziari amaiera jartzeko transijitze-kontratua egiten da amaren eta bi semeen artean: «*La transacción es un contrato por el cual las partes, dando, prometiendo o reteniendo cada una alguna cosa, evitan la provocación de un pleito o ponen término al que había comenzado*» (KZ 1809). Seme bakoitzak amari ordaindu beharreko kuota zehazteko egiten da. Hain zuzen ere, Aldundiko diru-laguntzak estaltzen ez duena erdi bana ordaintzeko obligazioa hartzen dute beren gain, kontu korrante mankomunatua ireki eta hortik ordainduz, horretarako kontuan 200 euro sartuko baititu bakoitzak hilero.


Amak jarritako demanda izanik, hortik aurrerako mantenua erabakitzeke egiten da akordioa epaiketaren barruan (transakzio judiziala). Beraz, transakzioa ez da egiten zahar-etxekeo gastuak norik ordaindu behar zituen zehazteko; hain zuzen hori da orain eskatzen diona (*petitum*) seme lehenak ber anaiari. Hitzarmenak, horregatik, aurrez egindako gastuak erreklamatzeko ez du gauza epaituaren izaera hartzen: «*La transacción tiene para las partes la autoridad de la cosa juzgada; pero no procederá la vía de apremio sino tratándose del cumplimiento de la transacción judicial*» (KZ 1816).

3. Eztabaida: arazo juridikoak

Auzian seme lehenak anaiari eskatu (demandatu) diona zera da: Aldundiak amari laguntza eman aurretik zahar-etxeari hark ordaindu zizkion gastuen erdia itzultzea, ez besterik.

3.1. Ordainketaren kausa eta itzultze-akzioaren oinarria

Seme lehenak gastuak ordaindu ditu bere kabuz, berak egin duen kontratutik sortutako obligazioa delako. Hirugarrenaren aldeko obligazioa «zergatik» egin duen, berriz, ikuspegi desberdinetatik azaldu daiteke: mantenua emateko obligazioa baduela onarturik, edo bere obligazioa betetzeko eta, gainera, besteren (anaiaren) obligazioa betetzeko. Azken hori defendatzeko erabiliko da arau hau oinarri juridiko moduan: «*Puede hacer el pago cualquier persona, tenga o no interés en el cumplimiento de la obligación, ya lo conozca y lo apruebe, o ya lo ignore el deudor. El que pagare por cuenta de otro podrá reclamar del deudor lo que hubiese pagado, a no haberlo*





hecho contra su expresa voluntad. En este caso sólo podrá repetir del deudor aquello en que le hubiera sido útil el pago» (KZ 1158). Kontua da «obligaziorik egotea» ezinbestekoa dela arau hori baliarazteko, beti ere obligazio horretan hirugarren hura zorduna izango balitz; kasuan, seme bigarrena zorduna izango balitz zahar-etxearekiko eta seme lehenak ordaindu izango balu haren zorra. Horregatik lehen erabaki behar den arazoa da ea mantenu-obligaziorik eratu den amarekiko. Aipatu denez, amak eskatu behar zuen obligazioa eratzea, zehazteko nor izango den zordun eta nola bete behar den obligazioko prestazioa. Horrelakorik gertatu ez denez, seme bigarrena ez da inolako obligazioaren zordun oraindik eta seme lehenak egin dituen ordainketak beste kausaren bat dute. Horregatik ere, ezin da alegatu seme bigarrena, ordaindu behar zuena ez ordaintzeagatik, kausarik gabe aberastu izan denik.

Kausa hori aurkitzeko, baztertu beharreko lehen aukera errakuntza da, hau da, kasuan ordainketa ez da errekontzaz egin, kontratuz eratutako obligazioa betetzeko egin delako: «*Cuando se recibe alguna cosa que no había derecho a cobrar, y que por error ha sido indebidamente entregada, surge la obligación de restituirla*» (KZ 1895). Itzulketa-akzioa baliatzen bada ere anaiaren aurka, ez da errakuntzaz egindako zerbeit itzultzea eskatzen. Beraz, ordainketaren kausa semeak amarekiko duen liberaltasunean edo betebeharrak moralean jarri behar da. Obligaziorik egon ez eta ama aprobetxatu denez ordainketaz, agian eska zekiokkeen amari zahar-etxeari ordaindutako dirua itzultzea. Baina eskaera horrek ere ez dauka bide juridikorik, hain zuzen ere, errakuntza egon gabe, ordainketa egiteko kausa badagoelako, bere kasuan amak alega zezakeen bidezko kausa: «*Aquel a quien se pida la devolución puede probar que la entrega se hizo a título de liberalidad o por otra causa justa*» (KZ 1901).


Akaso amaren zorra (itzuli beharra) izan balitz, haren oinordetzako zorra litzateke eta jaraunsleek (anai biek) erantzun beharko lukete. Hala eta guztiz ere, amak berak mantenu-prestazioa ezin badio eskatu bere ume bigarrenari «atzereraginarekin», azken batean bizi izan baita bere beharrak asetuz, are gutxiago eska dezake mantenu horren zorra seme lehenak, itzultze-akzioa mantenu-zorra zehazteko arauetatik erabat kanpo baliatu izan baita.

Horregatik, familiaren barruan mantenua emateko oso ohikoa den obligazio naturala egon dela uler daiteke: kausarik bada eta, ondorioz, «errepikatzeko» (itzulketa eskatzeko) ahalmenik ez du ordaintzaileak. Errepikatzeko ahalmena (*repetición*), bere kasuan, amaren aurka jarri beharko luke; posible balitz, amaren oinordetzan txertatutako zorra litzateke.

3.2. Obligaziorik eza

Zerbeit zor izateko, beraz, obligaziorik egon behar du, hau da, obligazioa existitu eta obligazio horretan alderdi zordunean agertu behar du norbaitek zordun izateko. Obligazioa baden ikusteko, iturriak aztertu behar dira eta zein iturrik sortu duen obligazioa erabaki, hasteko. Obligaziorik izanen da, noski, iturria baliozkoa izan eta hortik obligazioaren egitura osoa eratorri bada, alderdi subjektiboak (hartzekoduna eta zorduna) zehaztuz eta elementu objektiboa (prestazioa), akaso obligazioari lotu daitezkeen beste inguruabarrekin (lekua, epea, baldintzak, modua).

Mantenu-obligazioa ezartzen du legeak, baina, obligazio juridikoa eratu baino, betekizunak aurrekusi eta ezartzen ditu obligazio jakina osatzeko, hau da, nor eska dezakeen, nor izango den zorduna eta nolakoa izango den prestazioa. Kasuan, mantenuaren hartzekoduna izan behar duenak (amak) momentu jakin batean baliatzen du bere ahalmena eta orduan sortzen da obligazioa. Hain zuzen ere, obligazioa baden momentutik seme bigarrena prest agertzen da mantenua ordaintzeko eta horrek bideratzen du auziari amaiera jarriko dion transijitze-kontratua.





4. Ondorioak

Abiapuntu den kasu honen interesa, aztertu beharreko erakunde juridikoen izatean erreparatzea da. Zerbait aztertzeko, zalantzarik gabe, zerbait horrek existentzia izan behar du eta horregatik, obligazio-zuzenbidean ere, lehenik egiaztatu beharreko arazoa da ea obligaziorik baden edo ez, iturria aztertuz eta egitura osatuz.

(1) Legeak aurriraketen du familiaren barruan elkarren artean mantenua emateko «obligazioa». Baina obligazio hori ez da obligazioa esanahi teknikoan, zergatik eta eratu eta osatu bitartean ez baita existitzen. Hain zuzen ere, horretarako betekizunak besterik ez ditu ezartzen legeak eta, horien arabera, norbaitek bere ahalmena baliatuz frogatuko balu obligazioa eratzeko betekizunak biltzen direla, orduan bakarrik sortzen da obligazio juridikoa esanahi teknikoan.

(2) Norbaitek bizi modu duina eramateko, gaur egun erakunde publikoen laguntzaz baliatzen da lehenik, gizarte-politikan zaintza-programak ohiko bihurtu diren heinean egungo bizimoduan. Beharrea dagoenak egin behar du eskaera, noski, eta laguntza hori emateko familiaren baliabideak ere kontuan hartuko dira.

(3) Horrek ez du kentzen, ordea, legeak familiakoei beren artean ezartzen dien mantenu-obligazioa eta beren borondatez familiako edonork eman dezakeen laguntza (moralak eta ekonomikoak), bereziki gurasoekiko beren umeei. Laguntza hori emateko kausa badagoela ulertzen da gure gizartearen kontzientzian eta kulturaren; horregatik, gurasoei ematen zaiena itzultzea eskatzeko akzio juridikorik ezin da bideratu, ulertzen delako obligazio «moralak» egonik, obligazio hori betetzen dela. Are gehiago, kasu honetan bezala, gurasoek beren ondare ia osoa dohaintzan jadanik eman badie beren umeei.

(4) Horrelako egoerak gerta ez daitezkeen eta familiaren barruan arazoak saihesteko edo bideratzeko, komeni izaten da ordenamenduak eskaintzen dituen tresna juridikoez jabetzea eta erabiltzea, besteak beste oinordetzari begira itunak egitea; enpresa bideratzeko familia-protokoloa osatzea; edo norberaren borondatea ezinean geratuz gero, aurretiazko borondateen dokumentua ematea (*testamento vital*).